



HEPATITIS AUTOIMMUNERAKO TRATAMENDUAK

X batez markatuta dauden sendagaiak bakarrik hartu beharko dituzu:

- ☐ Aho bidezko Prednisona (marka komertzialak: Dacortin ®): medikamentu horren eguneko dosia medikuak adierazitakoa izango da. Pilulak, oro har, 2.5mgr, 5mgr edo 30 mgr-koak dira. Kontuan izan 30mgr-ko konprimatuek zirrikitu batzuk dituztela konprimatua dosi berdinetan zatitu ahal izateko. Erdibitu daitezke (2 zati geratuko lirake 15 mgr bakoitzarekin) edo 3 zatitan zatitu daitezke (horietako bakoitza 10 mgr). Konprimatua parti dezakezu adierazitako dosia lortzeko.
Albo-ondorio ohikoenak honako hauek dira: obesitatea, hipertentsioa, osteoporosia, diabetesa (edo okerrera egitea), urdurtasuna
- ☐ Aho bidezko budesonida (marka komertzialak: Intestifalk ®): 9mgr egunean. Albo-ondorio ohikoenak hauek dira: goragaleak, gorakoak, anemia, globulu zurien eta plaketen murrizketa
- ☐ Aho bidezko azatioprina (marka komertzialak: Imurel ®, Immufalk ®): medikamentu horren eguneko dosia medikuak adierazitakoa izango da. Albo-ondorio ohikoenak hauek dira: abdomeneko mina, anemia, globulu zuriak eta plaketak gutxitzea, pankreatitisa eta hepatitisa, tumore mota batzuk izateko arrisku oso txikia (oso tratamendu luzeetan soilik).
- ☐ Babes gastrikoa (Omeprazol ® 20 mgr, Pantoprazol ® 40mgr, Esomeprazol ® 20mgr): konprimatu bat egunean.
- ☐ Kaltzioa + D bitamina (marka komertzialak: Ideos ®, Mastical ®): konprimatu bat egunean.

TRATAMENDU-ARAU BIDEA:

☐ A aukera:

1.astea	Prednisona 60 mgr egunean
2.astea	Prednisona 50 mgr egunean
3.astea	Prednisona 40 mgr egunean
4.astea	Prednisona 30 mgr egunean
5.astea	Prednisona 20 mgr egunean
6.astea	Prednisona 15 mgr egunean
7.astea	Prednisona 10 mgr egunean
8.astea (hurrengo kontsultara arte)	Prednisona 5 mgr egunean

☐ B aukera

1.astea	Prednisona 40 mgr egunean	
2.astea	Prednisona 30 mgr egunean	
3.astea	Prednisona 20 mgr egunean	Azatioprina____mgr egunean
4.astea	Prednisona 15 mgr egunean	Azatioprina____mgr egunean
5.astea (hurrengo kontsultara arte)	Prednisona 10 mgr egunean	Azatioprina____mgr egunean

Digestio-aparatua/ Hepatologiako unitatea: Tel.: 945007573

Osatua: marzo 2023ko martxoa

IO-DIGESTIBOA-HEPATOLOGIA U.-01

Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu zalantzarik gabe, arreta ematen dizuten profesionali